ORRALLA
24'na
ABRIL
IGANDIA - DOMINGO
BILBAO-1921
BIDAYEN ITUNDUBA
FRANQUEO CONCERTADO

Euzkadi

ILBETE - LUNA LLENA
31'an ilhera.—Menguante el 31

AÑO - IX - URTIA — REDACCION Y ADMINISTRACION: CORREO, 17 - IDAZKOLEA TA BANAKOLEA — TELEFONO - 1.547 - URRUTIZKIÑA — APARTADO DE CORREOS 234 - IDAZKIKUTXA. 2.898 ZENBAKIYA - NUMERO 2.898

EGUNEKUA

TENE'REN BESTE IDAZKI BAT

Izparrak eta

EUZKEL-IXENAK

AZKOITI'N.—"Josu", Alberdi'tar Berarta eta Izagirre'tar Tome'ren semiari.

BERMEO'N.—"Ingartze", Asteintza'tar Balasi eta Goikoetxea'tar Silbestere'n alabeari.

Zorijonak ume ta gurasuei.

* * *

Atzo argita'du gendun emen euzkel-ixen bat, Elgoibarr'kua zala-ta, "Terese" Zabala'tar Emili eta Pagatzaurtundua'tar Miren'en alabea.

Ba, oker andi bat egin gendun errijaren ixenaz, euzkel-ixen ori ezta ba Elgoibarr'kua, ALGORTA'kua baño.

* * *

BILBAO-BEGOÑA'KO EUZKO-GASTEDIJAK

Gaur igandez jai andijak daukez Gastedi bijok. Goixian jaupa Karmelo'n, gero itza'dija Zabalbide'ko pelotatokijan, eta arratzaldian Bilbao'kuak antzoki-jaya.

Jai onekaz Euzko-Gastedi bijok ospatzen dabe Mungia'ko gudaketa edo batallia; etsidamu Jorralla 27'an dira urtiak bizkaitarrak lepua berotu eutsiela espaiñarrai... ¡areik beste aldi batzuk zuazan, arrayie! ¡gaur eurek emoten yauskubeak!

* * *

"LAZKANO" ITXORKUNATZAZ

Iurre'ko gure izparkari "Bela-Mendi"-k diñosku:

"Arbil-mendi Debatarrari eta Italatz'i: Lazkano abixenatzaz argitasun bat. Gazteiu-Elexabeitia'n dago basetxe bat, Elezkano ixena daukona, eta dago bertako elexa zarren ganean edo goi-aldean".

* * *

EUZKEL-IZPARRINGIJA

ARGIA, ixen au daukon izparringi asteroko bat asi da ointxe argitaltzen Donosti'n. Gaur urtengo da lenengo zenbakija. Berau, (eskerrik asko) bidaldu dauskube, ta 'pozik ikusi dogu dana dagola euzkera erraz-errazian. Izparrak ugari eta irakurgayak dakaz. Ingi leun-leuna ta gustizko zurijan, izki (letra) andi ta nasayan irarrita dago.

Uste dogu atsegiñez artuko dabela euzkeldunek izparringi au. Biar-biarreko da onakoxe bat, euzkera utsian izparrakaz.

* * *

"EUZKO-LANGILLIA"

Aste onetakua beti lez ederto dator. Aurre-aurrian dakar euzkerazko arlo bat, "Biergiña"-ri Anboto'tar Jon Joseba euzkel-idazle langilliak zuzentzen dautson erantzun polita. Gero, osteko orrijan dahaz izneurtu batzuk, "Susubil"-enak. Erderaz dakaz: Dregueral'ek Bermeo'ko euzko-langilliekaz darabillen okerrerijan larri; sosolistoei ukutu gustiz egokijak egiten dautsez; baita baidakar Arrigorriaga'ko ingi-langille batek bere lagunei egiten dautsen idazki jakingarrija; eta abar.

¡Bauko zer irakurri!

KIRIKIÑO.

Émakumea eta aberria

MIREN ITZIARR'I IDAZKIAK

Itziartxo nerea: Noizik beñean bederik ikusiten zera neri zeuk ere idazteaz, eta ala egin dirazu aste ontan idazki atseginarri bat. Badirudi nere abek irakurriaz, ez darrkizula aín gaitz emakumeak ere aberri-aldez alegintse ari; baña nere azkenengo idazkian, ama euzkeldunak berton umetxuek euzkeldun-azitzearen gain nasanagatik itaun au dagidazu: "Eta ama euzkeldun oyen senarrak, umetxo oyen aitak erdaltzale ba'dire, eta beren umetxuak erdeldun azitzea nai badute?"

¡Oi Itziartxo- Ori gutxitan oi da euzkeldun artean, emazteari bere umetxuaz euzkeraz mintzatzea galerazteraño beintzat. Eta senarrak eragozpen au ipintzen ez duan bitartean, alperrik izango da beraki erdeltzalerik amorratuena, ama euzkeltzale dan bitartean, sendia ere bai, ezpairik gabe. Eta... baita senarrak, aipa detan eragozpena emazteari ipintzen ba'dio ere, ez da, umeari euzkeraz itz egitia galerazten ba'dio ere, baldin emakumea benetan euzkeltzale ba'da bereakin aterako da, sendia euzkeldun izango da; ba emakumeak nai degunean...

Begira bestela zer gertatzen dan emakumea erdaltzale dan sendian; naiz ta gizona abertzale ta euzkeltzale sutsuena izan: erdera nagusi eta euzkera mirabe, euzkera maite, baña erdera erabilli; seme-alaben artean, aitaren aurrean bai, onek ezer esan ez dezan, edo esaten dualako, orduan bai nai-ta-ez bezela euzkera erabilli; bañan berak bizkarra eman orduko ekin berriz erderari; biotza nola, mingaña ara. Eta biotza erderara ipiñia, emakume euzkeldunok, zoritxarrez geyenok degu; eta onekin iñork eta ezerk gure izkuntzari dagion kalterik aundiena, geuk dagiogu, len ere bein baño gegagotan dezakezut eta.

Bestera, gure izkuntzaren zale ba'giña ¡ze indarra beronen aldez! Ba ez bakarrik umetxuak euzkeldun aziyaz, gure izkuntzaren baratza landara berriz ornituaz, beroni on lezayokegu; baita ez gutxi geuk geurekin beti eto edonun, eta albaitik ondoen erabilliaz ere; eta onetan alegindu bear gera.

Geure izkuntzaren aldez lan egiteko, ez dago berau gora'tzen eta berau aldez'ten itzez jardun bearrik. Goraltzerik aundiena, beronen aldez indarrik aundiena, berau erabilliaz emango diegu, auxe da bear duana-ta. Sendiyan eta senditik-at, lagun-artean eta lagun ez diranekin, ezer esan gabe, euzkeldun artean beintzat, besteak arrotz-elez asi ba'dira ere guk geurean erantzun, bein da berriro ta beti; eta nola emakumeak geran ibiltokiak betetzen ditugunak, dendak darabilzkigunak, jolasak ornitzen ditugunak, eta abar gizasemeak ainbat edo geyago; guk, geurez, izkuntz-nagusi egin ezin ba'geinke ere gure euzkera, izkuntza bear-bearreko egin genezakegu, eta emendik nagusi izatera alde gutxi. Besterik ezertxo ez; erabilli, erabilli, erabilli; emakume euzkeldunak euzkeraz itz-egin, euzkeraz idatzi, euzkeraz irakurri, euzkeraz otoi--egin, euzkeraz abestu eta abar, eta ¡ze aldea gure ele il-zoriyan degon onek!

Au guzia egin al izateko maitasun puska bat, zaletasun puska bat besterik ez degu bear; eta nola au berau bein da berriro desakezudan, au da: maitasuna bera bear dala bein da berriro desakezudan, onezkero Itziartxo zure artean esan dezu: "¡Zenbat aldiz itz bera!".

Ara: lengoko baten ibiltaldi luze xamar bat eman nuan; eta gure inguru abetan "Mayka" deritxon sakon baten, kukua abesten nabaitu nuan. Geldi'tu nintzan berari entzuten, eta jakiña "ku-ku, ku-ku, ku-ku" beti bat abesten zuan. Alaz guziyaz txoro egiñik egon nintzan berari entzuten, eta oldostu nuan: "Igaz, nola aurten, an, nola emen, kukuak beti bat abesten du; eta dagokiona, orixe da bere abestia".

Abertzaliontzat ere, berdin; au egiteko, ura egiteko, beti bat da bear deguna: "maitasuna, maitasuna, maitasuna", auxe da gure abestia, auxe da dagokiguna.

TENE.

Deba'tik.

Gernika'rrak Bizkargi'ra

Gure euzkel-gastiak, Bizkargi'n al dan gaste geyen biltzeko alegin itxelian diñardube. Ara, albo-errijetara bidaldu daben idazki aberkoya:

"Jel-batzoki lendakarijari agur: Ene aberkide ona, Gernikar Euzko-Gastedijak, Orrilla'ren lenengo igandian, igaz lez, Bizkargi'ra juatia erabagi dau, jai batzuk gertau eta egun alaitsu ta poskor bat, beste erri batzuetako abertzalieekin batera igaroteko, eta batez-be, Bilbao'n egun orretan egingo dan zezenketiari gastiak igesi egin dayuen.

Jayaren zertzeladak "Euzkadi"-n ikusi daikezuez, eta Bizkargi'n alkar besarkatuko dogula, eskier gagoz.

Agirijan imiñi zeuben batzokijan idazki au, ainbat geyen batu gaitezan.—Gernikar Euzko-Gastedijak".

¡Ori dok ori, mutillak!

BELU-MENDU.

Belaustegigoitia'ri

Atzoko zure idazkuna irakurrita, auxe erantzun biarr deutzugu:

Orain-arrte idaztijen mamiña egokija ixan da, azkenengo idazkunan erakutsi genduban lez. Eta orain egokija ezpa-da, ¿zegaitik da? Jel-usañagaitik ala beste zijo bategaitik?

Geure idazkunaren enparaba eztozu ukatu. Beraz, zutik dago.

Zeuk eztakixuz, lenengo idazkunan esan zebanez, auzi onen zertzelada gustijak. Olan ixanik eta eztabaidarik gura ezpa-dozu, ¿zegaitik sarrtu arazo onetan?

Ez uste gero, eztabaida gogaikarri-zaliak garanik, Axe'k eztabaida au sarrtu eban.

Ez etorri, ba, geugana olako negarrik egiten.

ALTUNA ta JEMEIN.

SUBE COMO LAS AGUAS DEL GRAN DILUVIO

No nos cansaremos de insistir, con oportunidad y sin ella, sobre la trascendencia inmensa que para todo vasco, y singularmente para todo nacionalista, debe tener la defensa de la Raza. Esta es la nacionalidad, y disuelta la Raza, quedarán aquí montañas, mares, valles, villas, ciudades, aldeas, música y literatura vascas; pero vascos, no. Y entonces, importarán una higa á la nacionalidad, muerta ya y enterrada, la abolición de la ley del 39 y la exaltación de la enseña tricolor.

Por esta verdad básica habremos de informar toda nuestra actuación en el espíritu de protección á la Raza. Esto ante todo lo humano. Esto sobre todo lo humano. Sobre las crestas del Aralar y sobre el mismo Sol, habremos de colocar nosotros, los nacionalistas, el ansia eficaz, el propósito decidido de amparar á los vascos. Cuanto signifique aumento de población indígena, mejorar su distribución por el territorio patrio, contener la emigración, combatir las plagas que diezman la Raza, favorecer á sus hijos en la durísima concurrencia con los de extraños pueblos, que aquí llegan en avalancha formidable, destrozando la civilización cristiana y vasca, todo eso debe ser mirado como lo primero entre lo primordial, como base y clave, principio y fin, razón primera y última del nacionalismo vasco.

Y no, seguramente, por mera exigencia lógica, por rendir á esa conclusión el homenaje reclamado por su limpieza y nobleza de origen. Es una realidad en absoluto aplastante, una necesidad mortal, la que nos obliga á fijarnos en la excelencia de esa doctrina. Es esa avalancha, extranjera por su sangre, por su irreligión, incompatible con el vasco, audaz, dominadora, que desemboca en nuestro suelo, lo invade todo y sube, sube como las aguas del gran Diluvio, ahogando inexoramente la vida vasca organizada y todos los gérmenes de esa vida.

Es avalancha que alcanza cuantas esferas de actividad se extienden ante nosotros. La obrerista industrial, la mercantil, las profesiones liberales, el comercio. Con la fortaleza del número, con la potestad devastadora de la masa, esa muchedumbre va dejando los campos que cruza al igual que las legiones de Atila.

Urge, por esto, antes de que quede de nosotros, los vascos, algo más que la memoria de que fuimos, de que existimos alguna vez; urge, repetimos, avivar el sentido de la vida racial, combatiendo con cuanto podemos la inmigración latina.

No se nos oculta que los ilustres cabos de la policía indígena, precursores de las hordas devastadoras cuyos caminos preparan, y las gentes que viven aquí de su inspiración y de sus cuartos, han de atacarnos pretextando progreso, civilidad, europeísmo, como si pudiera darse algún género de civilización con la idea y el hecho matrices de la ruina de las nacionalidades. Mas si esta razón, la razón para nosotros única, de que es un crimen la muerte de la persona nacional, no puede ser invocada en nuestro favor, ante ellos, porque rebotan en sus cerebros de cemento las ideas, sin arañarlos siquiera, bien podemos poner á su vista y la de sus mercenarios el ejemplo de los Estados Unidos, defensor celoso de sus hijos, con ser su pueblo multinacional y constituir un núcleo que por su grandeza—más de cien millones—es de imposible absorción.

Inglaterra, el Estado más poderoso del mundo, con Norteamérica, afirma hoy mismo, con vigor cada día más espléndido, sus propósitos de amparar á la nación de la inmigración extranjera. A pesar de los tratados de reciprocidad que le atan á muchos pueblos, y á pesar de tener una muchedumbre de sus hijos bajo el amparo de banderas extrañas, ha dictado una ley disponiendo que ninguna empresa podrá ocupar en sus trabajos más de un diez por ciento de extranjeros. Así cumple Inglaterra el primer deber nacional, el de la defensa de sus hijos ante la concurrencia extranjera.

Si esa ley rigiera en Euskadi, de ser vasco el noventa por ciento del personal de todas las empresas de nuestra nación, otra fuera, seguramente, la suerte de la Raza y de la fe del pueblo, y otro, asimismo, sería el porvenir de la misma riqueza pública.

El antivasquismo de los plutócratas bizkainos abatió las fronteras de la Patria en daño de sus hijos. La reparación llega implacable. La Internacional, que es negación de toda patria, llama á las puertas de las grandes explotaciones industriales de Bizkaya. Lo que el antivasquismo alzó va á ser derribado por la Internacional de Moscou.

K.

Jeltzale Ikastundia (Ateneo Nacionalista Vasco)

Habiéndose repartido a los señores ateneistas el impreso índice del folleto que el Ateneo Nacionalista piensa editar en cuatro lenguas, con objeto de dar a conocer el nacionalismo vasco en todo el mundo, particularmente en la Comisión de Negocios Extranjeros del Senado americano, y a fin de dar principio a los trabajos preliminares de dicho folleto, se convoca a todos los adheridos a las siguientes secciones para el martes, 26 del corriente, a las siete de la tarde en punto:

Sección segunda.—Bibliografía, Prensa, Propaganda y Publicidad.

Idem tercera.—Ciencia política: Doctrina nacionalista.

Idem quinta.—Legislación vasca: Derecho civil, foral y supletorio.

Sección 12.ª—Historia.

Idem 13.ª—Geografía.

Idem 14.ª—Política nacionalista comparada.

La Comisión ejecutiva.

MOLINOS DE CILINDROS PARA GRANOS.

JOSE ORMAZABAL Y COMPAÑIA

AUTONOMIA, 29; TELEFONO 101

MENDIGOIZALIAK!

A LOS GRUPOS DE MENDIGOIZALES DEL DISTRITO DE BILBAO, ADHERIDOS A LA FEDERACION.

Habiéndose convocado a sus delegados para hoy, domingo, día 24 del actual, a las nueve, en Juventud Vasca de Begoña, y celebrándose a esta hora en el Carmelo de Begoña una misa (en lugar de a las diez, como era nuestra creencia), se les advierte que se verificará la Asamblea un cuarto de hora después de terminado el mitin del frontón de Zabalbide, en JUVENTUD VASCA DE BILBAO.

En ella se constituirá la Junta de distrito, nombrará jefe y miembro del Comité regional y dispondrá el plan de propaganda a desarrollar durante el año en curso.—**El delegado del Mendigoizale Aberri.**

SE VENDE

Una buena casa en San Sebastián, toda ó por pisos sueltos. Informará: Cipriano Lecuona. Vergara, 12, 2.º, San Sebastián.

DIPUTACION

Se ausentó el presidente, señor Etxebarria, por requerir su presencia asuntos propios en Donostia y Beasain, y se hizo cargo el vicepresidente, señor Aransolo, quien manifestó á los periodistas no tenía noticias, pues había estado por la mañana en la Audiencia, formando parte de un Tribunal en asunto contencioso-administrativo, y al llegar al Palacio del Señorío se había limitado á despachar la firma corriente.

Se había recibido un telegrama del señor Arrinda anunciando una borrasca, y supimos que para hoy se había convocado una nueva Asamblea de alcaldes de las Encartaciones.

GRAN MITIN

HOY, DOMINGO, A LAS DIEZ Y MEDIA DE LA MAÑANA, EN EL

FRONTON DE ZABALBIDE

TOMARAN PARTE

DON ALVARO DE LA SOTA

„ JULIÁN DE ARRIEN

„ GORGONIO DE RENTERIA

¡ACUDID, PATRIOTAS!

Las Juventudes Vascas de Begoña y Bilbao

ANOCHE, EN JUVENTUD

Con extraordinaria animación tuvieron lugar anoche los ensayos de la obra "De la vida rústica", en la que su autor, nuestro querido amigo don Alfredo de Etxabe, ha puesto todo su saber, que no es poco, para presentarnos hoy sus escenas de manera acabada.

Los jóvenes artistas del Cuadro dramático llamarán, indudablemente, la atención por la interpretación que de los personajes de esta comedia ofrecerán.

Las señoritas, especialmente, harán aplaudirse con entusiasmo, pues no cabe mejorar en manera alguna sus difíciles papeles.

Otro tanto hemos de decir de la nutrida masa coral, que, en número de ochenta ejecutantes, hará su reaparición, después de tantos años de silencio, con las obras anunciadas.

Con este motivo viéronse anoche concurridísimos los salones de Juventud Vasca, en donde se vive la vida de la Patria, laborando incesante é intensamente por ella.

Aumentó la animación y entusiasmo el cuarteto de txistularis, que amenizó agradablemente la velada, ejecutando á Banda, completa nuestras viejas canciones.

LA VELADA

Esta tarde se celebrará la velada anunciada con arreglo al programa que los lectores conocen ya.

Como ayer anunciamos, han sido vendidas todas las localidades preferentes.

Hoy, á las diez, se abrirá el despacho en Juventud para la venta de las localidades que quedan.

Quienes deseen acudir á esta interesante velada, pueden apresurarse á solicitarlas inmediatamente.

Esta mañana, á las diez, se celebrará el ensayo general en el mismo teatro, y á las doce y media, el del Orfeón. Se ruega á todos los cantantes acudan puntualmente. También se advierte que la velada dará comienzo á las TRES Y MEDIA EN PUNTO de la tarde.

EL MITIN

Tendrá lugar, á las diez y media de la mañana, en el frontón de Zabalbide, que indudablemente se verá abarrotado de patriotas deseosos de escuchar y aplaudir á los oradores, señores Sota, Arrien y Renteria.

Las Juventudes Vascas de Begoña y Bilbao no descansan organizando estos actos para que resulten con el esplendor que se merece la conmemoración del hecho glorioso de Mungia.

El banquete tendrá lugar en la Juventud Vasca de Begoña, á la una en punto del mediodía, y á él asistirán buen número de patriotas inscritos.

La solemne misa cantada se celebrará en el Carmelo de Begoña, á las nueve de la mañana, y en ella tomará parte el Orfeón de Juventud.

A las Juntas Municipales

IMPORTANTE

Se recuerda a las Juntas Municipales de la Comunión Nacionalista, que hallándonos en el periodo de reclamaciones del Censo electoral, se ven en el deber de presentar cuantas reclamaciones sobre inclusión de nuestros amigos en el Censo electoral o exclusión sean legales, en el plazo marcado por la vigente Ley electoral, que termina el día 5 del próximo mes de mayo.

Las actuales listas electorales objeto de reclamación deberán hallarse expuestas durante dicho periodo en las Casas Ayuntamientos.

Cuantas dudas les sugieran sobre ello podrán consultar a la oficina correspondiente, en Bidebarrieta, 14, tercero.

La Comisión electoral.

Los estudiantes católicos

A causa del cobarde atentado cometido en Moreda, han transmitido los estudiantes católicos de Bizkaya el siguiente telegrama:

"Presidente Consejo Ministros.
Madrid.

Federación Estudiantes Católicos Vizcaya protesta enérgicamente infame atentado contra gran obrero católico Vicente Madera, víctima odios varias veces manifestados, nunca castigados como merecen.

Confiamos actual Gobierno haga triunfe justicia sin contemplaciones e imposiciones elementos actuales.

Junta Federal."

Errege Ostatu Zarra

ANTIGUO PARADOR REAL

Gran Hotel Central

RESTAURANT. Junto al Gran Casino
SAN SEBASTIAN

DENTISTA MARTIN de ISUSI — Cruz, 2, 1.º —

Agencia funeraria de los Hijos de José Baro.

†

EL PRESBÍTERO

Don Domingo de Bengoa y Gomendiourrutia

Cura párroco de San Antonio Abad, de Bilbao

(Q. E. P. D.)

Falleció en Abadiano ayer, 23 de abril de 1921, a los 56 años de edad

HABIENDO RECIBIDO LOS SANTOS SACRAMENTOS Y LA BENDICION APOSTOLICA DE S. S.

SUS HERMANOS DON GREGORIO Y DON GASPAR; SOBRINOS DON CANDIDO (PRESBITERO), DOÑA SOLEDAD, DOÑA JOSEFINA, DOÑA EMILIA Y DON FERNANDO; SOBRINO POLITICO DON ISIDRO VICINAY; PRIMOS Y DEMAS PARIENTES,

SUPLICAN a sus amigos se sirvan encomendarle a Dios en sus oraciones y asistir a la conducción del cadáver desde la casa mortuoria al cementerio de Abadiano, mañana, lunes, a las CUATRO Y MEDIA de la tarde, y a los funerales que en sufragio del alma de DON DOMINGO DE BENGOA Y GOMENDIOURRUTIA, se celebrarán el martes, día 26, a las ONCE de la mañana, en la iglesia parroquial de San Torcuato, de Abadiano.

El duelo se despide en la casa mortuoria, y para los funerales en las respectivas iglesias.

Todas las misas que se celebren en las seis parroquias de Bilbao, y en las de Abadiano, los días 25 y 26, serán aplicadas en sufragio del alma de DON DOMINGO DE BENGOA Y GOMENDIOURRUTIA (q. e. p. d.).